




# ➔ JOKOAK GENERORIK AL DU?

Historikoki apustu-jokoak genero maskulinoarekin lotu izan dira, baina badakigu emakumeek ere jokatzen dutela, ikusezin bihurtu diren arren. Gizonei bezala, jokoak arazo larriak eragin diezazkieke. Apustu egitea "gizonen kontua" dela pentsatzea ikuspegi partziala eta irreal da.

## ➔ EMAKUMEEK ERE JOKATZEN DUTE




### ➔ AZTERLAN GUTXI. DATU GUTXI

Jokoaren arloan emakumeak eta genero-ikuspegia ez dira sakontasunez atertu eta orain dela urte gutxi arte ez zegoen datu fidagarriarik. Arlo horretan egindako hurbilketa guztiak dimentsio maskulinoa zuten eta ez ziren genero-ikuspegiarekin ikertzen.

## ➔ AUSAZKO JOKOAREKIN LOTUTAKO OHITURAK GENERO-IKUSPEGIAREKIN




## ➔ ERREALITATE ISILA




Jokoarekin arazoak dituzten pertsonen **1/3** emakumeak dira


Estimazio hori egin diren azterketa urrietan baieztatuta da.



Emakume jokalariek gizonek baino estigmatizazio sozial handiagoa jasaten dute.



Hasteko adina berantiaragoa da eta emakume jokalaria izatean dakarren "zigor sozialak" beilatzen du.



Babesik ez izateak arazoaren barneratzean eragiten du eta hura aitortzea eta goiz hautematea galarazten du, baita, beharrezkoa bada, laguntza terapeutikoa bilatzea ere.

Tratamendua jasotzen duten pertsonen **1/10** emakumeak dira


### ➔ ZERGATIK KOSTATZEN ZAIE EMAKUMEEI LAGUNTZA ESKATZEA?

- Beste pertsona batzuen zaintza lehenesten dute beren premien gainetik.
- Urrats hori emateko denbora gehiago behar dutenez, haien sintomak nabarmenagoak eta egoerak konplexuagoak dira (antsietate koadro larriagoak, depresioa, oso autoestimua baxua, gatazka familiarak, zorrak...).
- Genero ikuspegi eta formakuntza duten profesionalen zuzendutako terapia taldeak falta dira.


### ➔ Ezinbestekoa da jokoarekin arazoak izan litzaketen emakumeei zuzendutako SENSIBILIZAZIO kanpainen bidez errealitate hori JAKITERA EMATEA.

"EMAKUME, EZ ZARA JOKOAGATIK ARAZOAK GARATU DITUEN BAKARRA" Aralar Elkartearen 2022ko kanpainaren leloa  
"Emakumeak epaitu gabe laguntzea beharrezkoa da. Beldurrik ez izatea, erabakia hartu eta laguntza eskatzea".


## ➔ SEXISMOA ETA JOKOA



➔ Ausazko joko eta bideojoko askotan EREDU MASKULINO ETA FEMENINO ESTEREOTIPATUAK erabiltzea oso orokortua dago. Merkatu maskulinoarentzat pentsatua dagoen produktua da, mezu eta irudi misogino eta matxistak, ideologia sexista argia dutenak, aho batean errepikatzen dituenak. Kasu gehienetan, ez dago balio, jarrera edo jokabide berdinezaleak adierazten dituen eredurik.



➔ EMAKUMEEAREN KOSIFIKAZIOA oso presente dago jokoaren munduan. Jokomakina ugarik karga erotikoa duten jarreratan edo arropa gutxirekin agertzen diren emakumeen irudiak dituzte. Argi eta garbi adierazten dute zein den jokoaren irudikapenean esleitzen zaien rola.




DATUA

Gizarteak ausazko jokoak ulertzeko duen moduari dagokionean, emakumeak kritikoagoak dira esperientzia horrekin, gizonak, aldiz, hein handiagoan baloratzen dute jokoak on edo oso on gisa, edo inpartzialagoak dira. "Emakumeari eta jokoari buruzko panoramika" txostena. Jokoaren Euskal Behatokia.

"Arazoak nituen jokoarekin eta laguntza-bilera batera joan nintzen lehenengo egunean pentsatu nuen: Non sartu naiz! Guztiak gizonak dira, ni izan ezik. Kikildu nintzen, baina bidea hori zela ulertu nuen eta aurrera jarraitu nuen"

Amaia, jokalaria ohia



GEHIAGO JAKIN NAHI AL DUZU?